


Prentsa irakurtzen 1919ko Iruñean



NAGORE IRAZUSTABARRENA URANGA
@irazustabarrena

Iruñea, 1919ko urtarrila. Nafarroako prentsak gai nagusi bat izan zuen hizpide egun haietan: 1839an galdutako foruak berreskuratu eta estatutu baten bidez autonomia lortzeko aukera. 1918-1919 urteetan autonomia estatutua lortzeko mugimenduak bultzada handiagoa izan zuen Katalunian, baina Hego Euskal Herrian ere eztabaida erakundeetara iritsi zen. 1918. urtea amaitzeaz zela, abenduaren 30ean, Nafarroako Diputazioak deituta, udalek eta gorteetako diputatuak ezohiko batzordea egin zuten, segidako proposamena adosteko: “Gaitasun foralak berreskuratzea, Espainiaren batasuna hautsi gabe”. Santiago Cunchillos Iruñeko zinegotzi abertzaleak, Manuel Aranzadi gorteetako diputatu abertzaleak eta Martinez Alsua foru diputatu karlistak aurka bozkatu zuten, 1839ko legea indargabetzeaz gain, subiranotasun osoa nahi zutelako.

Eztabaida hura egunkari eta aldizkarietara ere iritsi zen. Joxemiel Bidador ikerlariak xehe aztertua zuen garai hartako prentsa nafarra: “1910etik aurrera Iruñeko giro periodistikoa nahiko majoa zen. Aukera politiko bakoitzak bere egunkaria zuen: integristek *La Tradición Navarra*, eskuinak *El Eco de Navarra* eta *Diario de Navarra*, karlistek *El Pensamiento*... Eta oso gauza bitxia gertatu zen: 1911-1912 inguruan euskal testuak ugaritzen hasi ziren egunkari horietan”. Agerkaririk “elebidunena” –euskara gehien erabiltzen zuena–, EAJk sortutako *Napartarra* astekaria zen.

1919ko lehen zenbakiko azaleko lehen artikulua, adibidez, euskarazkoa izan zen eta, nola ez, nafar instituzioen proposamena zuen hizpide. “Ez dute garaitu” izenburupean, halaxe zioen testu gaziak: “*Euzkadi’ren etsaiak tzarrek burruka gogorra erabili dute egun oketan Naparra’ren izen garbia loiez betetu nairik*”. Ordezkarik politikoei nafar herritarren burujabetza nahiari muzin egitea leporatzen zieten jeltzaleek. Hurrengo zenbakietan gaia sakonago jorratuko zuten, besteak beste, Aranzadik batzordean botatako hitzaldia osorik jasota.



Egunkari gehienek, ordea, ez zuten proposamenaren aurka egin. *Diario de Navarra* ez zituen aurkako iritzia zuten ordezkariak aipatu ere egin. Eta *El Pensamiento navarro* izan zen, ñabardurak ñabardura, *Napartarraren* jarrerarekin bat egin zuen bakarra. Gainera, egunkari karlistak gogor kritikatu zuen –gastelaniaz– abenduaren 30eko batzordean armada erabili izana: “Tamalgarria da nafarron Etxearen ateak zaintzeko indar armatuak erabili izana, ate horiek beti zabalik egon baitira guretzat, atzo arte”.

Hala ere, 1839ko legea indargabetu eta foruak berreskuratze-ko proposamen hura ez zen sekula Madrilera iritsiko. Estatutu proiektuek ez zuten aurrera egingo, ez Euskal Herrian ez Katalunian, eta nafar prentsaren elebitasunak ere nabarmen egingo zuen behera handik aurrera. Bidadorrekin ez du garbi, zergatik hasi ziren euskaraz ere idazten: “Agian 1911n EAJ *Napartarra* aldizkaria publikatzen hasi zelako? Baliteke hari kontra egiteagatik hasi izana”. Eta baliteke aurkaria desagertzean utzi izana. Izan ere, haixek izan ziren *Napartarraren* azken aleak, otsaila hasieran desagertu baitzen betiko.

Behintzat, 1919ko urte hasiera hartan, eta Iruñean bertan, aita kaputxinoen San Antonio eskolaniaren sotoan, beste aldizkari bat sortu zen, elebakarra, euskara hutsezkoa. ●

